

2022ko Tolosako
aurrekontuei buruzko
elkarrizketa anitzak:

**Zeri eman behar
diogu garrantzia?
Zer indartu?**



Irudia: www.jeanjullien.com

Udal barruko lanketa

2. saioa arduradun politiko eta teknikoekin

2021eko urriaren 22an, 9:30etik 11:30era, Tolosako Kultur Etxeko topagunean

Gaurkoa: aurreko saioaren jarraipena

Pasa den astean, urriaren 15ean, Tolosako Udalak 2022ko aurrekontuak osatzeko egiten ari den lanketa partehartzailearen azken faseko lehen saioa burutu genuen, Udal gobernuko kide batzuekin eta udaleko sail desberdinetako teknikari taldearekin.

Lehen saioaren emaitzak gogora ekarriz:

- Orain arte landu eta jaso denari erreparatuta –udal gobernuaren fokuak, teknikarien arabera kontuan izan beharrekoak eta herritar talde batek egindako ekarpenak-, 2022. urtean arreta bereziki eskatzen dutela uste dugun 7+1 foku identifikatu genituen elkarrekin.
- 7+1 arreta-gune horiekiko, Udalak 2022rako dagoeneko zer duen aurreikusita lantzen hasi ginen –hori osatzeko lana eskatu geniolarik taldeari, bigarren saiorako-.

Gaurko helburuak

Hortik abiatuta, eta azaroaren 3an herritarrekin batera egingo dugun saioan ere kokatuz, gaurko bileran honetan zentratu gara:

Azaroaren 3an, herritarrekin elkartzen garenean:

1. Lehenik itzuliko diegu, 2022rako aurrekontuei begira egindako entzute-ariketaren arabera, gaur egun 7+1 fokok arreta berezia eskatzen dutela interpretatu dugula. Eta laburki bada ere, azalduko diegu Udalak zer duen aurreikusita 7+1 arreta-gune horiei erantzun emateko: ez sail bakoitzak zer, baizik eta udal ikuspegitik lan-lerro nagusiak. Zer kontatuko diegu?

Errelato horren muina eraiki dugu elkarrekin, bileraren lehen atalean.

2. Udalak zer aurreikusi duen azaltzeaz gain, herritarrekin landu nahi dugu aurreikusitako hori zerbaitetan aberastu daitekeen; eta zer beste aztertu genezakeen 7+1 arreta-gune horiei erantzuteko. Gero, ahal den heinean, aurrekontuetan jasotzeko –eta, ezingo balitz, datozen urteetarako lan-ildo modura bilduta gera daitezen-.

Herritarrekin zer beste esploratu nahiko genuke, oraindik Udaletik heldu ez diogulako, edo nola egin ez dakigulako, nahiz eta potentzialtasuna igerri? Bileraren bigarren atalean zenbait aukera identifikatu ditugu.

Parte hartzaileak

Hona, gaurko taldea osatu dutenen zerrenda:

Arduradun teknikoak:

- Arantxa Estanga, Kirolak
- Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantza
- Alaine Izagirre, Ekonomiaren sustapena, Merkataritza, Feriak eta Turismoa
- Jone Miner, Hirigintza, Azpiegiturak, Etxebizitza
- Iñigo Muñoz, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak eta Auzoak
- Jokin Ansorena, Kultura, Gazteria, Jaiak
- Nerea Cereceda, Gazteria
- Ziortza Sanz, Euskara eta Hezkuntza

Arduradun politikoak:

- Olatz Peon, alkatea
- Begoña Tolosa, zinegotzia

* Ezin izan dute saiora bertaratu honakoek: Jokin Monfort (Komunitatea eta Gobernantza), Agurtza Zubero (Berdintasunta), Nerea Letamendia (zinegotzia)

Eskerrik asko guztioi!

Barruko 2 saioa: emaitza-gako nagusiak

I ATALA. Udalak zer duen aurreikusita 7+1 arreta-guneei erantzuteko? Zer kontatuko diegu herritarrei?

Gogora ekarriz, hauek dira aurreko saioan entzute-ariketarik identifikatu genituen **7+1 arreta-gunek**:

1. Administrazioaren arintasun- eta gerturatze- beharra
2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna
3. Osasuna eta bizi-ohiturak
4. Gazteak
5. Bertakoa, Tolosakoa
6. Aldaketa klimatikoa
7. Indarkeria matxista eta LGTBI-fobiak
8. Interseksionalitatea eta transbertsalitatea

Eta honakoa da, modu sintetiko batean, azaroaren 3ko bileran herritarrei jakin araziko dieguna, Udalaren asmoei buruz –noski, helburua ez da aurreikusitako guztia xehetasunez azaltzea; baizik eta arreta-foku horiei dagokienean, planteatzen diren lan-ildo nagusiak adieraztea, jakinik beste gauza asko ere egingo direla Udaletik-.

Udalak zer du aurreikusita 2022rako, arreta-gune hauetan? Asmo nagusiak

1. Administrazioaren arintasun- eta gerturatzeko beharra

- **Udal barruko prozedura eta tramiteak** sistematizatu eta arintzeko hasi zen lanketa estrategikoak jarraipena izango du.
- Herritarrekin modu zuzenagoan aritzeko ahaleginak ere jarraituko du: **Udate**.
- Bereziki **euskarazko komunikazioa** hobetzeko lanketa egingo da.
- Herritarrekin batera herri-erronka bat lantzeko **esperientzia pilotu bat** garatuko da, AzantzazuLab eta OCDErekin batera.

2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna

- Adinekoei zuzendutako **Uzturre eguneko zentroa** osatu eta aberastu egingo da, planteamendu integralago batekin. Zenbait adibide: landa-eremuetara iristen den taxi zerbitzua, zaintzaileak zaintzeko programa, langileen lan-baldintzen eta egoerari arreta...
- **Abegi aterpea** irekiko da.

3. Osasuna eta bizi-ohiturak

- **Usabalgo eremuan aisialdi-gune bat** sortuko da –gazteentzat, eta ez bakarrik-. Bizikletaz eta patinetez gozatzeko aukera emango du. Era berean, eremuak ibaiarekin lotura izango du, ibilbide bat planteatuz. Espazio publiko osasungarria izan nahi du, kalera ekintzak ateratzea bultzatuz, aniztasun-irizpideak txertatuz...
- **Gurpil-gune bat egokituko da Zumardi Handian** –Udalak beste eragile batzuekin lankidetzan bultzatutako proiektua da-. Gune horretan bizikletak konpondu eta birziklatu ahal izango dira. Eta aukera bat izan liteke mugikortasun jasangarriari lotutako gauza gehiago zentralizatzekoa –adibidez trizikloen erabilera, adineko pertsonen zuzenduta eta bolondresen laguntzarekin-.

4. Gazteak

- **Haur, Gazte eta Nerabeen diagnostikoa eta plana** garatzeko prozesua.
- **Gazteak eta administrazioa, elkar hobeto harremantzeko** helburuarekin lanketa berezi bat egin nahi da.
- **Gaurko kultur etxea liburutegi bihurtzeko** proiektuaren baitan, herritarrekin lanketa bat egingo da.

5. Bertakoa, Tolosakoa

- **Azoka** bultzatzeko eta indartzeko egitasmoen jarraipena emango zaie: azoka-laguna, ikastaroak...
- **Gogoko eta Gogoko-express**: Tolosa&Co-rekin lankidetzan, azokako produktuen erosketara eta banaketarako sistema bat eta takilak jarriko dira Zerkausion.

Udalak zer du aurreikusita 2022rako, arreta-gune hauetan? Asmo nagusiak

6. Aldaketa klimatikoa

- **Garraio publikoan intermodalitatea** errazteko saiakera egingo da: MUGI sisteman integratzeko aukerak aztertuko dira.
- Horrek **hiri-autobus elektrikoa** indartzen ere lagungo du –lehena izan da Euskal Herrian-.
- **Auto elektrikoak kargatzeko gune bat** edo bi jarriko dira.
- **Energia arloan**, aurten egin den udal eraikinen azterketatik eratorritako hainbat neurri hartuko dira: Udala eredu (barruko eta hiri-argiteria, eguzki-izpiak aprobetxatzeko plakak...).
- **Aldaketa klimatikoaren aurkako konpromisoan, Udalaren datuak** herritarrei modu argiagoan eta gardenagoan emateko lanketa egingo da.

6. Indarkeria matxista eta LGTBI-fobiak

- Haur, nerabe eta gazteekin **hezkuntza formal eta ez-formalean indarkeria matxista** lantzeko ekimenekin jarraituko da.

Arreta-gune guztietan, gainera, **interseksionalitatea eta transbertsalitatea** txertatzeko ahalegin berezia egin nahi da.

II ATALA. Zer beste esploratu nahi dugu herritarrekin? Haziak eta aukerak

Nahiz eta atal hau zabalik eramango dugun azaroaren 3ko saiora, dagoeneko zenbait aukera-eremu identifikatu ditugu. Honakoak:

<p>Administrazioa-herritarrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udalaren eta herritarren arteko komunikazioan, nahiz eta ahaleginak egin, ez da nahiko litzatekeena lortzen –eta bide horretan askorentzat interesgarriak eta lagungarriak izan daitezkeen informazioak “galdu” ere egiten dira, adibidez dirulaguntzetarako deialdiak-. • Zerk lagundu dezake?
<p>Zaintza komunitarioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bere garaian planteatu zen zaintza komunitarioaren arloan Berazubi auzoan proiektu pilotu bat garatzea: bertako auzotarrak (adinartekotasuna txertatuz) eta beste eragile batzuk inplikatur –komertzioa...-. Zer zentzu/enfoke izan daiteke interesgarria? • Komunitatea sortzeko, pandemia garaian hain beharrezkoa den elkar-laguntza indartzeko, zer eta nola egin genezake Tolosan, lankidetzak publiko-sozial-pribatua aktibatuz? Badira adibide politak herrian: adibidez ikastetxe batean laguntza behar duten ikasleei laguntza hori ikasle ohiak diren bolondres talde batek emango die.
<p>Osasuna eta bizi-ohiturak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Baratza komunitarioak, elikagaien bankua, elikadura km0... zer lotura eta egitasmo gehiago esplora ditzakegu?
<p>Aldaketa klimatikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitate energetikoen kontua puri-purian dago, eta era berean gai konplexua da. Horri nola heldu diezaikegu Tolosan? • Landa-eremuan basoen zaintza jasangarria ahalbidetzeko aukera desberdinak daude. Zer paper joka dezakegu horretan lursailen jabeek, erakundeek, enpresa pribatuek...?

Eskerrik asko!

Udal barruan landutakoarekin, azaroaren 3an jarraituko dugu, herritarrekin batera

Ea, ahalegin desberdinak batuta, 2022rako aurrekontuak aberastea lortzen dugun, nahiz eta maila apalean izan; ekarpen mugatua izanik ere, norantza egokian bada, ibilbidetxo honek merezi izango du.

Eskerrik asko guztioi!

Saioaren laburpen grafikoa

